

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Corpas kontseilaria eta Lizarrako alkatea Ruako San Pedro eliza barruko obrak ikustera joan dira

*Apirilean hasitako bigarren faseko lanen aurrekontua 1.960.907,50 euro da eta 11 hilabeteen burutuko dituzte*

Jueves, 19 de mayo de 2011

Juan Ramón Corpas Mauleón Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilaria eta Begoña Ganuza Lizarrako alkatea Lizarran dagoen Ruako San Pedro eliza ikustera joan dira gaur eguerdian. Eliza monumentu historiko-artistikoa da eta 1931tik, historiaren aldetik, Done Jakue bideari lotuta egon da. Nafarroako Gobernuak Nafarroa 2012 Planeko jardueretan barne hartu du elizaren zaharberitzea, eta 5 milioi euroko zenbatekoa bideratu du horretarako. Apirilean hasitako bigarren faseko lanen aurrekontua 1.960.907,50 euro da eta 11 hilabeteen burutuko dituzte.

Zaharberitze lanak eliza barruan egiten ari dira orain, bobeda eta paramentuen apainketak konpontzeko eta berritzeko, horrek zera esan nahi du: lehenengo fasean aurkitu zituzten muraletako pintura hondar jakinak garbitu eta finkatuko dira, beirateak garbitu eta konpondu, gas hartuneen instalazioak, zoru bero-emaila bidezko berokuntza, elektrizitatea eta argiak jarriko dira, iturgintza lanak egingo dira, saneamendu eta segurtasunerako lanak egingo dira.

Fase honetan, halaber, tailerreko zaharberitze lanak egingo dira, desmuntaturiko ondasun higigarriak (oholtza, tailuak eta mihiseak) eta tenpluaren barruan gorde direnak (koruko aulkiak, organoa, pulpituak, ahots-itzulkinak, San Andres kaperako burdin hesia, koruko balaustrada eta iparraldeko ateko burdin langa) berriuko dira. Gainera, nabe, presbiterio, kaperak eta sakristian kareharrizko harlauzak eta koruan egurrezko oholak jarriko dute, San Andres kaperako zoladura tratatuko dute, bankuak eta belaunaulkiak, aldarea, anboia eta presbiterioko egoitza jarriko dituzte. Goiko korura joateko egurrezko eskailera berriak egin eta klaustrora sartzeko eta kanpora ateratzeko harrizko eskailera ere berriuko dute.

Apirilean hasitako bigarren faseko lanen aurrekontua 1.960.907,50 euro da eta 11 hilabeteen burutuko dituzte.

### Zaharberitzeko lehen faseko prozedurak

2010eko urtarrilean eta otsailean egin zituzten lehen faseko lanetan barruko ondasun higigarriak (erretaulak, tailuak, mihiseak eta higigarriak) antolatu, desmuntatu, inbentarioan jaso, babestu eta Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoko biltegira eraman zituzten (39.886,93 euro). Biltegira eraman ondoren, gas geldoen bidez higigarrietako intsektuak hil zituzten, baita tenpluan geratu ziren ondasunetakoak ere.

Gero, barrualdeko indusketa arkeologikoa egin eta paramentu bertikalak eta bobedak garbitu eta aztertu zituzten, baita higigarrien elementu finkoak babestu eta zoru bero-emaile bidezko berokuntzarako eta ur- eta elektrizitate-hornidurarako kanalizazio nagusiak egin ere. Fase hori 2010eko apirilean hasi ziren egiten eta amaitu dute dagoeneko. Orotara 1.042.179,39 euroko kostua izan du.

Indusketa arkeologikoari esker egiaztatu zen XV. mendetik XVIII.era hobiratze ugari egiteko erabili zutela tenplua. Nafarroako mariskalen kripta aurkitzea garrantzi handikoa izan zen. Agirien arabera han hilobiratu zituzten, kapera nagusiko aurre absidean. Horrez gain, nabarmentzekoa izan zen historian zehar kapera bi mailatan egin zutela jakitea. Hori dela-eta, eraikina birgaitzeari esker, jatorrizko bi mailak berreskuratu dira mezetan erabiltzeko baldintzak hobetu eta burualde bereziaren itxura arkitektonikoa leheneratzeko, mailakatze eta guzti; hala, burualdearen eta erdiko nabea hobeto bateratzen dira. Mariskalen hilobien kriptarako sarreran aldarearen azpian geratuko den erregistro bat jarri da. Han, Nafarroako mariskalen kriptaren hilobi goresgarria jarriko da, indusketa arkeologikoaren obretan aurkitu eta birgaitu dena.

Indusketa amaitu ondoren, lurpean geratu ziren hondakin arkeologikoen gainean geruza geotextil bat jarri eta indusketa eremu guztia hartxintzarrez estali zuten. Jarraian, zulodun zolataren azpian berokuntza, elektrizitatea eta saneamendurako kanalizazioen hodiak jarri ziren. Zolata hormigoizko blokeen eta hormigoizko armatuzko geruzaren gainean jarritako zeramikazko taulaz dago eginda eta nabeen eta San Andres kaperaren aurreko maldei eusten die zolata berria behar bezala berdintzeko behar diren doiketa txikiak eginez.

Paramentu bertikalen eta bobeden azterketa honela egin da: eskuz muraletako apaindurak kendu dira eta, hala, lagin zabalak lortu dira gorde diren barruko muraletako apainduren eta pinturen geruzak desestali eta dokumentatzeko. Hainbat garaitako bederlatzi pintura-geruza aurkitu dira, XIII. mende hasieratik hasita (alboetako nabeetako burualdean dauden geruzak) orain dela gutxiko garaira arte (1963). Lan horiei esker historiaren segida eta tenpluko paramentuak eta bobedak apaintzeko erabilitako muraletako pintura motak zeintzuk izan ziren jakin daiteke.